

EUSKO TRENBIDEAK- FERROCARRILES VASCOS SA SOZIJETATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

IZENA, EGOITZA, XEDEA ETA IRAUPENA

1. ARTIKULUA.- IZENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

“SOCIEDAD PÚBLICA EUSKO TRENBIDEA-FERROCARRILES VASCOS SA” deritzon merkataritza-sozietate anonimoa sozietate publikoa da, eta haren bazkide bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da.

Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate publikoa den neurrian, araubideak Euskadiko Ogasun Orokorraren aplikazioko araudia, estatutu hauek, 1989ko abenduaren 22ko Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bategina eta sozietate anonimoen araubide juridikoa arautzen duten gainerako xedapenak bete beharko ditu.

2. ARTIKULUA.- EGOITZA

Sozietatearen egoitza eta lege-ordezkaritza hau da: Atxuri 8, Bilbo.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, betiere udalerrri beraren barruan, egoitza aldatu ahal izango du.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko, Espainiar Estatuko edo atzerriko edozein udalerritan sukurtsalak, agentziak, delegazioak eta ordezkariak sortu, kendu edo lekualdatu ahalko ditu.

3. ARTIKULUA.- XEDEA

1.- "Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA" sozietatearen xede nagusia da tren-garraioko zerbitzuak ematea, bai bidaiarientzat, bai salgaiarentzat, material gurpildunen mantentze-lanak barne, eta trenbideko garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren beste jarduera eta zerbitzu batzuk.

Edozein xedapen juridikok edo arauk agintzen dion neurrian, bereziki, sozietateak abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako trenbide-lineak ustiatuko ditu.

Era berean, Interes Orokorreko Trenbide Sareko lineetan tren-garraioko zerbitzu-mota guztiak eman ahal izango ditu.

2.- Halaber, jarduera nagusia osatzeko, "Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA" honako helburu hauek ditu:

- a) Bidaiariei zein salgaiei dagokienez, errepide, funikular, tranbia edo kablez garraio-zerbitzuak ematea, eta horren barruan izango dira: material gurpildunaren mantentze-lanak, eta aipatu garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren bestelako jarduerak eta zerbitzuak.
- b) Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez besteko baliabideen bitartez, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzuak ematea, barne direla aipatu zerbitzuak emateari loturik diren edo haien osagarriak diren zerbitzuak eta jarduerak.
- c) Eraikuntzari, kontserbazioari eta ekipamenduari eta teknologia eta bere baliabideei dagokienez, aholkuak ematea eta azterlanak egitea, trenbide-azpiegituren antolamendua eta ustiapena bai eta bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzua ematearen gainerako zuzendaritza, ikuskapena eta kontrol teknikoa burutzea ere.
- d) Beste pertsona juridiko batzuk eratuaz edo horietan parte hartuaz nahiz dekretuz esleitzen zaion garraioarekin erlazionaturiko titularitate publikoko museoak kudeatzea.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, beste administrazio batzuk edo beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk (bakoitza bere ahalmenez baliatuaz) esleitutako ataza hauek egitea: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barrukoak izanik goragoko idatz-zatietako helburuari lotuak direnak.

3.- Osagarri gisa goragoko 2. paragrafoan jasotako jarduerak eta 1. paragrafoan aurreikusitako jarduera nagusia gauzatu ditzake sozietateak, zuzenean edo zuzenbidez onartutako beste edozein eratan, hala nola helburu berdina edo antzekoa duten entitateetan bazkide gisa parte hartuaz.

4.- Sozietatearen xedearen barruko jardueretariko bat gauzatzeko, legezko xedapenek titulu profesionala, administrazio-baimena edo erregistro publikoetan inskribatzeko eskatuko balute, delako titularitate profesionala duen pertsonaren bidez egin beharko lirateke aipatu jarduerak, eta, beharrezkoa bada, gauzatzen hasi baino lehen, eskatutako administrazio-betekizun guztiak konplitu beharko dira.

4. ARTIKULUA.- IRAUPENA

Sozietatearen iraupena mugagabea da 1982ko ekainaren 25ean (eratze-data) jarduna hasi zuenetik.

II. TITULUA

KAPITALA. AKZIOAK

5. ARTIKULUA.- KAPITALA

Kapital soziala hamazazpi milioi berrehun eta hogeita hamasei mila zortziehun eta hogeita sei euro eta hogeitazentimokoa (17.236.826,20 €) da; bi serietan (A eta B) jaulkitako tituluen bidez osatuta dago. A seriea euro bateko (1,00 €) hamabi milioi zazpiehun eta hogeita bat mila bostehun eta laurogeita hamasei (12.721.596) akzio izendunek osatzen dute. Akzio horiei batetik (1) hamabi milioi zazpiehun eta hogeita bat mila bostehun eta laurogeita hamasei (12.721.596) arteko (biak barne) zenbaki korrelatiboak dituzte, guztiak harpidetuak eta ordainduak.

B seriea euro bat eta hogeita hamar zentimoko (1,30 €) hiru milioi laurehun eta hirurogeita hamahiru mila berrehun eta berrogeita hamalau (3.473.254) akzio izendunek osatzen dute. Akzio horiei batetik (1) hiru milioi laurehun eta hirurogeita hamahiru mila berrehun eta berrogeita hamalau (3.473.254) arteko (biak barne) zenbaki korrelatiboak dituzte, guztiak harpidetuak eta ordainduak.

6. ARTIKULUA.- AKZIOAK

Akzioak tituluen bidez ordezkaturako dira, Administrazio Kontseiluko buruak eta idazkariak sinatuko dituzte, eta sozietatearen zigiluaz zigilatuko dira.

Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du zenbait akzio biltzen dituzten tituluak ematea erabakitzeko, egokitzat jotzen bada.

III. TITULUA

SOZIETATEAREN ORGANOAK

7. ARTIKULUA.- SOZIETATEAREN ORGANOAK

Sozietatearen gobernu eta administrazioa Akziodunen Batzar Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari dagokie, Sozietate Anonimoei buruzko Legeak xedatzen duen moduan, eta hark ematen dizkien eskumenekin, baldin eta estatutu hauek berariaz xedatzen dutenarekiko modu ordezkatzailean aplikaziokoa bada.

8. ARTIKULUA.- AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA. IZAERA.

Akziodunen Batzar Nagusia, legearen arabera deituta eta eratuta, sozietatearen organo subiranoa da.

9. ARTIKULUA.- BATZAR NAGUSIEN MOTAK

- a) Batzar nagusiak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.
- b) Ohiko batzar nagusia, gutxienez, urtean behin bilduko da, eta, halaber, ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan egingo du, sozietatearen kudeaketa gaitzesteko; bidezkoa bada, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko eta emaitzaren aplikazioa ebazteko.

- c) Aurreko atalean aurrez ikusitakoa ez den batzar oro ezohiko batzar nagusitzat joko da, eta Administrazio Kontseiluak komenigarritzat jotzen duenean ala legezko xedapenekin bat etorritz bidezkoa denean deituko da.

10. ARTIKULUA.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA. IZAERA.

Administrazio Kontseiluaren egitekoa da sozietatea modurik zabalenean kudeatzea eta ordezkatzea epaiketetan eta horietatik kanpo. Batzar Nagusiaren erabakien eta legeek edo estatutuek batzarrari egotz diezazkieten ahalmenen arabera mugak baino ez ditu izango bere jardunean.

11. ARTIKULUA.- OSAERA

Gutxienez hiru kidek eta gehienez hamabostek osatuko dute Administrazio Kontseilua, Batzar Nagusiak zehaztutakoaren arabera. Kide horiek ez dute inolako bateraezintasunik izango abenduaren 26ko 25/1983 Legearen eta aplikazioko gainerako araudiaren babesean, eta lau urtez arituko dira karguan. Epe hori igarotzen denean berriz hautatuak izan ahalko dira behin edo gehiagotan, gehieneko iraupen berberaz, batzarrak edozein unetan kargua kentzea erabakitzearen kalterik gabe.

Administratzaileak ez dira halabeharrez akziodunak izango. Administratzaileen izendapenak kargua onesten dutenetik izango ditu ondoreak.

Epemugara iristean, izendapena hurrengo Batzar Nagusia egiten denean edo Batzar Nagusia egiteko legezko epea gainditu denean iraungiko da.

Kontseiluak lehendakari bat aukeratuko du bere baitatik, bai eta nahi izanez gero lehendakariorde bat edo bi ere. Era berean, aske izendatuko du pertsona bat idazkariaren kargua betetzeko nahiz eta kontseilaria ez izan. Kontseiluaren bileretan parte hartuko du hitzez, baina botorik gabe, kontseilaria ez bada. Kontseiluak idazkariordeak izendatu ahalko ditu, kontseilarien artetik edo horietatik kanpo.

12. ARTIKULUA.- DEIALDIA. DENBORA ETA BILERETAKO TOKIA.

1.- Kontseiluaren bilerarako deialdia lehendakariak egingo du egokitzen jotzen duenean edo gutxienez kontseilarien ala kontseilari-delegatuen herenak eskatzen duenean. Dena den, gutxienez urtean lautan bilduko da, hain zuzen ere, hiruhileko natural bakoitzaren barruan bana.

2.- Deialdian azalduko dira Kontseilua biltzeko eguna eta ordua, bai eta bileraren tokia ere, baldin eta sozietatearen egoitza ez bada. Bestela, sozietatearen egoitzan egingo dela ulertuko da.

3.- Nolanahi ere, ez da Kontseilurako deialdia egin beharrik izango eta edozein gai aztertzeko balioz osatuta geldituko da, betiere kontseilari guztiak bertan edo ordezkaturik egonik, aho batez onartzen bada bilera egitea.

13. ARTIKULUA.- KONTSEILUAN PARTE HARTZEA

1.- Legeari eta estatutu hauei jarraikiz, Kontseiluaren bileretan sozietatearen kontseilariak parte hartuko dute hitzarekin eta botoarekin. Kontseilari batzuek beste kontseilari batzuk ordezkatu ahal izango dituzte, baina ordezkariak idatziz ziurtatu beharko da. Idazki horretan halaberrez azalduko dira ahalorde-emailearen eta ahalordedunaren izenak, beren karguak Kontseiluan, ahalordea egin den eguna eta tokia eta ahalordea ematen duenaren sinadura, Kontseilu jakinean (tokia eta eguna zehaztuko dira) ahalordedunak ordezkatzearen nahiaz gain. Hala, ahalordedunari ahalmen nahikoa emango zaio aztertzen diren gai guztietan edo berak adierazten dituen zehazketan bere izenean esku hartu eta bozkatzeko. Aurreko artikuluko hirugarren epigrafeak aurrez ikusten duenerako, ahalordeak, gainera, Kontseilua egin dadin adosteko ahalordetze berezia izango du.

2.- Kontseiluko lehendakariak Kontseiluan zuzendari nagusiak eta enpresaren gainerako teknikariak, hitzarekin baina botorik gabe, parte har dezaten eskatzeko ahalmena du. Halaber, komenigarritzat jotzen dituen pertsonak deitu ahalko ditu arlo juridiko, ekonomiko eta bestelakoetan aholkatu eta informatzeko. Horrez gain, Kontseiluko lehendakariak enpresaren beste langile batzuek parte hartzeko eskatu dezake, baldin eta Kontseiluaren bileran eginkizun osagarriak, materialak edo administratiboak bete behar badituzte.

14. ARTIKULUA.- KONTSEILUAREN BILERAK EGITEA

1.- Administrazio Kontseilua balioz eratuta geratuko da aldi berean bere kideen erdia gehi bat bertaratzen badira.

2.- Bileran lehendakariak Kontseiluko lehendakariaren beraren titularrak edo bere ordezkariak izango du; idazkari zereginetan, berriz, titularra edo bere ordezkariak izango da. Lehendakariak bilerak zuzenduko ditu. Idazkariaren ardura deialdiak eta jakinarazpen egitea, aktak idatzi eta lehendakariaren oniritzia eskuratzea eta ziurtagiriak egitea izango da.

3.- Erabakiak bileran dauden kontseilarien gehiengo osoak hala onetsita hartuko dira. Kontseiluko lehendakariak kalitatezko botoa izango du boto-berdinketa gertatuz gero ebazteko.

4.- Kontseiluko bilera bakoitzaren akta idatziko da, eta aztertu diren funtsezko puntuak eta hartu diren erabakiak izango ditu. Xede horiez, sozietateak akta-liburua edukiko du, behar bezala izapidetuta, eta Kontseiluko idazkaria arduratuko da hura gorde eta zaintzeaz.

15. ARTIKULUA.- KONTSEILUAREN ESKUMENAK

1.- Kontseiluak honako eskumen hauek ditu:

- A) Estatutu hauetan bereziki aipatutakoak.
- B) Batzar Nagusien erabakiak gauzatzea.
- C) Egintza- eta kontratu-mota guztietan sozietatea erantzukizun osoz ordezkatzeko.
- D) Sozietatearen langileak izendatu eta kargutik kentzea; langileen eginkizunak, eskumenak, fidantzak, soldatak eta hobariak zehaztea, estatutu hauek bestelako aipatu ezean.
- E) , Sozietatearen funtzionamendua antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta Batzar Nagusiari barne-araubideari buruzko araudia proposatzea, enpresaren jarduerak hala eskatuz gero.
- F) Helburu soziala betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak egitea eta trafiko juridikoaren berezko negozio- eta eragiketa-mota guztiak gauzatzea. Hala eta guztiz ere, BERROGEITA HAMAR MILIOI (50.000.000) PEZETATIK gora eskubide errealak eskuratu, besterendu, eratu edo azkendu behar direnean eta sozietatearen jabari pribatuko higiezinaren gainean edozein xedapen-egintza gauzatzen denean, eragiketarako Batzar Nagusiak adostuko ditu.
- G) Sozietatearentzat onuragarriak izan daitezkeen kreditu- eta mailegu-eragiketarako erabakitzea, bai eta abalak eta fidantzak prestatzea ere.
- H) Legeak eskatzen dituen programen eta aurrekontuen aurreproiektuak egitea eta bere eskumeneko arloetan gastuak baimentzea.
- I) Urtero ohiko Batzar Nagusiari aurreko ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena aurkeztea, merkataritza-araudiak eta Euskadiko Ogasun Orokorrak sozietate hauei eskatzen dizkien gainerako agiriekin batera.

- J) Sozietateari eragiten dizkioten eskubide eta ekintzez baliatzerakoan egokiena erabakitzea ohiko epaitegietan eta berezietan, Estatuko, autonomia erkidegoetako, probintzietako, udalerrietako eta beste erakunde publiko batzuetako bulego baimenduen aurrean; ohiko eta ezohiko errekurtsioak jartzeari buruz erabakitzea, bai eta Auzitegi Gorenaren aurrean ere, eta auzietan letratu eta prokuradoreen alde ahalmenak egilestea, bidezkozat jotzen den moduan.
- L) Sozietatearen arazoak zuzenbide pribatuko arbitrajearen mende uztea eta arbitraje horretara konprometitzea, legeak xedatzen duen edozein modalitatepean, aurreko F) idatz-zatian aipatzen diren mugekin.
- M) Sozietatearen funtsak eta ondasunak erabiltzea; jatorria gorabehera, erreklamazioa, jasotzea eta kobratzea, betiere sozietatearen interesak kontuan hartuta; gordailuak osatzea; banku- eta kreditu-kontuak eta bestelakoak zehaztea; oro ar, dirua eta baloreak erretiratzea; Espainiako erakundeekin edo atzerrikoekin, baita Banku Ofizialarekin ere, banku-eragiketa guztiak egitea; erantzunkidetasunez sozietatearen funtsak erabiltzea; kanbio-letrak eta merkataritzako efektuak igorri, endosatu, bermatu, onartu, ordaindu eta negoziatzea eta, laburbilduz, banku- eta merkataritza-trafikoko berezko eragiketa guztiak egitea, mugarik gabe.
- N) Batetik, zeregin zehatza betetzeko eta, bestetik, sozietatearen interesak ahalik eta ongien defendatzeko, pertsona jakinei ahalik eta ahalorde zabalenak ematea, betiere legeak eta estatutu hauek zehazten dituzten mugen barruan.

2.- Zerrenda hau adierazpen hutsa da, eta ez ditu inola mugatzen ahalmenik zabalenak sozietatearen negozioak eta interesak gobernatu, zuzendu eta administratzerakoan, baldin eta ez badaude beren-beregi gordeta Akziodunen Batzar Nagusiarentzat.

3.- Lehen aipatu diren ahalmenak betiere xede sozialaren barruan eta xede hori bera betetzeko erabiliko dira.

Dena den, administratzaileek gehiegikeriaz jarduten badute, sozietateak fede onez eta erru astunik gabe aritu diren hirugarrenen aurrean erantzun beharko du.

16. ARTIKULUA.- SOZIETATEAREN BESTE ORGANO BATZUK

Batzar Nagusiak honako hauek sortu ahalko ditu:

- a) Batzorde Betearazlea izeneko kide anitzeko organoa, Administrazio Kontseiluko kideek osatutakoa.

- b) Administrazio Kontseiluaren barruan pertsona bakarreko organo bat edo batzuk, kontseilari-delegatuaren izenez.
- c) Zuzendari nagusiaren kargua.

Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu batzorde betearazleko kideen eta kontseilari-delegatuen kopurua, eta artikulua honetan aipatzen diren organoetako titularrak izendatu eta kargutik kenduko ditu. Halaber, legez salbuetsita egon ezean, beren eginkizunen irismena finkatuko du eta, bidezkoa bada, dagokionean, ordainsariak definituko ditu, betiere muga batzuen barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko goi-karguen ordainsariei buruzko legeriaren arabera.

17. ARTIKULUA.- KONTSEILUKO KIDEEN ORDAINSARIA

Administrazio Kontseiluko kideek Administrazio Kontseiluko bilera bakoitzean parte hartzeagatik hogeita hamabost mila pezetako dieta jasoko dute, administrazioan edo sozietatean bertan lanpostu edo kargu bat dutenek izan ezik, baldin eta partaidetza lanpostuan edo karguan aritzeari atxikita badago.

Zenbatekoa urtero egokituko da kontsumoko prezioen indizeak izandako aldaketaren arabera.

IV. TITULUA

EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA

18. ARTIKULUA.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN OROKORRAREN ARAUDIA

Sozietate hau Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren aplikazioko araudiak arautuko du, eta bereziki honako arlo hauetako xedapenei erreparatuko die: programak, aurrekontuak, kontrola eta kontabilitatea. Horrek guztiak dakartzan ondore juridikoak onartu beharko dira eta ordenamenduaren ondoriozko betekizun eta muga guztiak kontuan hartu beharko dira.

19 ARTIKULUA.- URTEKO KONTUAK

Urtero, abenduaren hogeita hamaika erreferentziatzen izanda, Administrazio Kontseiluak urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena eta, hala badagokio, kontu eta kudeaketa-txosten bateratuak egingo ditu. Sozietatearen ekitaldia ixtetik zenbatzen hasita hiru hilabete izango ditu. Agiri horiek guztiak legez xedatutako moduan ohiko Batzar Nagusian onesteko aztertuko dira.